


Nola argitaratu dezaket nire programazioa Gertu Kultura plataforman?

Kultur-jarduerak eta -ekitaldiak argitaratzeko ondorengo pausuak jarraitu behar ditugu:

- **Saioa hasi** erabiltzaile eta pasahitza sartuz



- **Kontrol panelera** sartu eta **Ekitaldi-programa** blokeko lehenengo aukera sakatu: **ekitaldi eta saioak editatu**



Kontrol panela

Kudeaketa

Ekitaldi-programa

Ekitaldi berri bat altan eman

Ekitaldi eta saioak editatu

Plazak eta erabilgarritasuna esportatu

Amaitutako ekitaldiak

Kudeaketa eta erreserbak

Ekitaldi bakoitzeko erreserbak

Erantzun gabe dauden eskaerak

Itxarote-zerrenda

Erreserba eta eskaera guztien zerrenda

- Irekitzen den pantailan ekitaldi berri bat altan emateko osatu behar diren 6 atalak zehazten dira: oinarrizko informazioa, sailkapena, prezioa eta ordainketa, datak, multimedia eta laburpena.



- Atal bakoitzean jarraitu behar diren urratsak plataformak zehazten ditu. Orokorrean, informazio-hutsuneak betetzeko bi aukera daude: informazioa eskuz idatzi edo eskainitako aukeretatik aproposena aukeratu. **Adi informazioa idatzi behar denean!** Kontua programatzaile bakoitzak

aukeratutako hizkuntzan konfiguratua dago (euskaraz edo erderaz). Informazio hutsuneak idatziz bete behar direnean beti aukeratutako hizkuntzan egin behar da lehenengo eta, ondoren, bigarren hizkuntzan. Hau da, kontua euskaraz konfiguratua badut, informazioa euskaraz emango dut lehenengo eta ondoren erderaz. **Beti bi hizkuntzak bete behar dira. Gelaxka batzuk ez dute EU/ES/CA/EN hizkuntzen aukera jartzen automatikoki sistemak itzultzen duelako.**

Oinarrizko datuak

Izenburua eu* es ca en	Azpititulua / Zikloa eu es ca en
Ekitaldi mota *	Diziplina artistikoa *
- Aukeratu -	- Aukeratu - - Aukeratu -
Ekipamendua *	
- Aukeratu -	

Adi! Oinarrizko informazioa, Prezioa eta Datak ataletan eskuz itzultzeko gelaxkak daude.

Adibidea:

Izenburua eu* es ca en	Izenburua eu* es ca en
FROGA	prueba

- **Oinarrizko informazioa** bete ondoren, **Sailkapena** pantaila bete behar da.
 - Tarifa atala: hemen **automatikoki GERTU tarifa markatuta** agertzen da beti.
 - Saio motak: **ordutegi mugatuak** (saio itxi bat denean, data eta ordu zehatz batean) eta **zehaztu beharreko ordutegia** (taldearekin eguna eta ordua adosten denean)
 - Erreserba mota: **banakakoak** (ikuskizunak, kontzertuak, etab. Ekitaldiak butakak eta kopuru mugatua duenengan) eta **taldekoak** (bisitak, tailerrak, etab. Talde minimo eta maximoa zehaztu behar du programatzaileak)
- Pantaila bat osatzen dugun bakoitzean **gorde eta jarraitu** botoia sakatu behar dugu.

OINARRIZKO INFO-A

SAILKAPENA

PREZIOA ETA ORDAINKETA

DATAK

MULTIMEDIA

Saio motak

Tarifak *

☒ Gertu ☐ Murritzua

Saio motak *

☐ Ordutegi mugatuak ☒ Zehaztu beharreko ordutegia

Ordutegi mugatuak: kuskizunak, kontzertuak, entseguak eta antzekoak.
Zehaztu beharreko ordutegia: museo-bisitak, tailerrak eta antzekoak

Erreserba mota *

☐ Banaka ☒ Taldeka

Banaka: ikuskizunak, kontzertuak, entseguak eta antzekoak.
Taldekako sarioak: museo-bisitak, tailerrak eta antzekoak

Taldearen gutxieneko lekuak

4

Taldearen gehieneko lekuak

20

Gorde eta jarraitu

- Hirugarren pantaila **Prezioa eta ordainketa** atala da. Ordainketa sistemaren informazioa sartu behar da eta hiru aukera daude:
 - Doan:** aukera hau sakatzen denean ez da beste ezer zehaztu behar.
 - Ordainketa leihatilan:** prezioa zehaztu behar da (0-3€ artean) eta sarrerak nola eskuratu azaldu behar da (ekitaldia baino lehen, ondoren, email bidez, etab.)
 - Transferentzia:** prezioa zehaztu behar da (0-3€ artean), bankua eta kontua. Ez bada informazio hau plataforman jarri nahi, mezu bat jarri daiteke esanez ordainketa prozesua email bidez azalduko dela.

Ordainketa informazioa

Ordainketa mota *

- Select a value -

✓ Transferentzia

Ordainketa leihatilan

Doakoa

Banku-erakundea*

Prezioa

Prezioa Gertu [eu](#) | [es](#) | [ca](#) | [en](#)

B

I

Gorde eta jarraitu

- Hurrengo atalean **datak eta ekitaldiaren irisgarritasun** baldintzak zehaztuko dira. Atal hau bi modutan bete daiteke:
 - Aurreko pausuetan **ordutegi mugatua** aukeratzen denean: saioa edo saioak zehaztu behar dira. Ekitaldi batek hainbat saio izan ditzake (adibidez: kontzertu berdina hilabete berean 4 aldiz eskainiko dena) edo kontrakoa, saio bakarrekoa izatea (adibidez: kontzertu bat behin bakarrik eskainiko dena).

Saioak

Ekitaldiaren saioak aldatu

Saioa sortu

Saio berri bat sortu

Data *

Format: 09/02/2024

Ordua

Input format: h:mm.

- ☐ adosteko garaia
☐ eskolako saioa

Lekuak

Lekuak Gertu *

Tarifa honetarako gutxieneko plaza kopurua5

Gurpil-aulki kopurua *

Bi tarifetarako erabilgarri dauden gurpil-aulki kopurua

- Aurreko pausuetan **zehaztu beharreko ordutegia** aukeratzen denean: programatzailearen erabilgarritasuna zehaztu behar da (asteko egunak, ordutegia eta noiz hasten da eta noiz bukatzen da jarduera hau egiteko epea). Gero, beti taldearekin adostuko da.

OINARRIZKO INFO-A	SAILKAPENA	PREZIOA ETA ORDAINKETA	DATAK	MULTIMEDIA	LABURPEN A
-------------------	------------	------------------------	--------------	------------	------------

Date from *

E.g., 09/02/2024

-arte *

E.g., 09/02/2024

Astegunetan *

☐ Astelehen ☐ Asteartea ☐ Osteguna ☐ Larunbata

☐ Asteazkena ☐ Ostirala ☐ Igandea

Ordutegia *

☐ Goiza ☐ Arratsaldea ☐ Gaua

- Ondoren, beheko atalean, ekitaldiaren irisgarritasun neurriak hautatzeko aukera dago. Era berean, nahi den deskribapena edo informazioa gehitu daiteke.

Egitarratuari buruzko informazio gehiago [eu](#) | [es](#) | [ca](#) | [en](#)

Irisgarritasuna

- | | |
|--|---|
| ☐ Audiodeskribapena | ☐ Materialak/ Ukipen-bisita |
| ☐ Bukle magnetikoa | ☐ Gorpil-aulkietarako lekuak |
| ☐ Informazioa braillean | ☐ Saio lasaia i |
| ☐ Informazioa irakurketa errazean | ☐ Azpiztitulazioa |
| ☐ Zeinu-hizkuntzan interpretatzea | |

- Azkenik, **Multimedia** atalean, argazki bat igo behar da.

Irudiak

Ikuspegi onena lortzeko, sartu gutxienez 2000 px-ko zabalera duten paisaia formatuko irudiak.
Fitxategi berria gehitu

Seleccionar archivo

livo selec.

Kargatu

Egitarratuak hainbat irudiak izan ditzake, baina gehienez 10 irudi.

- Irudia aukeratu eta kargatu ondoren, haren informazioa bete behar da: izenburua eta ordezkotestua (irudiaren deskribapen txikia).

Irudiak

Ikuspegi onena lortzeko, sartu gutxienez 2000 px-ko zabalera duten paisaia formatuko irudiak.

Fitxategiaren informazioa

Operations

 captura_de_pantalla_2024-02-09_a_las_12.49.43.png 146.79 KB		Kendu
Ordezko testua	Izenburua	
Testu hori pantaila-irakurleek, bilatzaileek edo irudia kargatu ezin denean erabiliko dute.	Izenburua tresna-aholku gisa erabiltzen da erabiltzaileak sagua irudiaren gainean jartzen duenean.	

Egin klik eta arrastatu gurutzean irudiaren zatirik garrantzitsuenak bideratzeko. Irudiaren zati hau ez da inoiz moztuko.

- Seigarren pantailan berez ez da informazio berririk gehitu behar. Momenturarte egin denaren laburpena ikusiko da atal honetan. Hizkuntza bakar batean ikusiko da laburpena, itzulpena ondo dagoela berresteko argitaratu beharko da eta webgunetik sartu.
- Argitaratzeko laburpenaren atalean dagoen botoi berdea sakatu behar da, beheko atalean kokatzen dena.

Gorde eta argitaratu

orde eta jarraitu

- Atalen bat bete ez bada edo beharrezkoa den informazioa sartu ez bada, sistemak antzemango du eta ez du argitalpena onartuko. Akatsak zeintzuk diren horrela zehaztuko du:

OINARRIZKO INFO-A

SAILKAPENA

PREZIOA ETA
ORDAINKETA

DATAK

MULTIMEDIA

LABURPENA

Ekitaldi hau ezin da argitaratu. Arrazoiak dira:

- Ordainketa modua nahitaezkoa da
- Datak nahitaezkoak dira.
- Egunak nahitaezkoak dira.
- Ordutegia nahitaezkoa da.

- Akatsak zuzendu ondoren argitaratu eta, martxan izango gara!